

# 1- ENTZUN AURRETIK

## 1.1 Hoteleko erreserba egiteko

   **1. Zertarako erabiltzen duzu Internet? Osatu taula.**



### Helburua

Liburuak erosteko  
Musika erosteko  
Zinerako sarrerak hartzeko  
Hoteleko erreserba egiteko  
Hegazkina hartzeko  
Arropa erosteko  
Tresnak erosteko: telefonoa....  
.....

### Non sartzen zara? Zer helbidetan, zer webgunetan?

Liburuak Amazonen erosten ditut  
.....



- Nik hotelak erreserbatzeko erabiltzen dut Internet.
- Nik ez. Ni bidaia-agentzia batera joaten naiz.
- Ba oso erraza da. Booking-en sartzen zara eta oso erraz egin dezakezu.
- Nire lagun batek Internet bidez erosten du arropa.



**Komentatu talde osoaren aurrean batez ere zertarako erabiltzen duzuen.**



**2. Entzungo duzun istorioan, Josu eta Amaia Interneten dabilta. Ea entzun gabe asmatzen duzun: zertan uste duzu dabilzala?**

- Pisurako erosketak online egiten.
- Hegazkina erreserbatzen, Josu bere andregaiarengana joateko.
- Etxea erreserbatzen, kuadrillarekin joateko.

## 2- ENTZUN BITARTEAN

### 2.1 Nork egingo du erreserba?



**Entzun audioa eta erantzun galderei. Adostu erantzunak lagunarekin.**

1. Oporretara joan aurreko prestaketa-lanak...

- Amaia eta Josuren artean egingo dituzte.
- lagun guztien artean egingo dituzte.
- agentzia baten bidez egin dituzte.

2. Zer egin behar dute Amaiak eta Josuk?

- Hotela erreserbatu.
- Etxe bat alokatu.
- Kanpin batean lekua aurkitu.

3. Nora joango dira oporretan?

- Andaluziara eguzkia hartzera.
- Oraindik ez dute erabaki nora joan.
- Andaluziara surfa egitera..

4. Azkenean, etxearen erreserba....

- Amaiak egingo du.
- Josuk egingo du.
- Ez dute egingo, besteekin hitz egin arte.

5. Nola ari dira lanean Josu eta Amaia?

- Amaia idazten eta Josu ondoan.
- Josu idazten eta Amaia ondoan.
- Bien artean txandaka

## 3- ENTZUN ONDOREN

### 3.1. Aginduak ematen



**Josuk aginduak edo instrukzioak ematen dizkio Amaiari zer egin behar duen esateko.**

**Begiratu transkripzioari eta idatzi taulan aginterazko aditz horiek; bigarren zutabean idatzi aditz laguntzaileak.**

AMAIA.— Hori burua, motel! Ba datu horiekin...

Begira, Hierbabuena hondartza, Barbate ondoan.

JOSU.— Ea, bilatu Google Maps-en.

AMAIA.— Oraintxe.

JOSU.— Jar ezazu sateliteko ikuspegia.

AMAIA.— Ados.

JOSU.— Hurbildu gehiago.

AMAIA.— Horrela? Sekulako hondartza da!

JOSU.— Bai, ederra!

AMAIA.— Nahiko lasaia ematen du.

JOSU.— Hobeto. Orain etxearen erreserba. Sartu webgunean. Barbaten bertan, ados?

AMAIA.— Bai, nagusi!

JOSU.— Kanpo aldean dagoen etxe hori ez dago batere gaizki. Begiratu libre dagoen.

AMAIA.— Mesedez.

JOSU.— Mesedez, zer?

AMAIA.— Mesedez eskatzeko.

JOSU.— A, barkatu!

AMAIA.— Egin nahi duzu zuk bilaketa?

JOSU.— Ez, ez, ez, oso ondo ari zara.

AMAIA.— Horixe, hitzez hitz betetzen ari naiz esaten duzun guztia. Bai, libre dago.

JOSU.— Bikain! Egin erreserba!, azkar!

AMAIA.— Nagusi, bai, nagusi!

JOSU.— Ai, bai. Neska, barkatu, neska!

Testuko aginterazko aditzak	Aditz laguntzailea
1. jar	ezazu
2.	
3.	
4.	
5.	
6.	
7.	
8.	

3.2  Jarri arreta hizkuntzan**Proposamenak egiten**

Proposamenak egiten ditugunean, **aginteraz** gain beste forma batzuk ere erabiltzen ditugu: **zergatik ez....., aditza geroaldian...**

- Hori jakiteko, sartu (zaitez) webgune honetan: www... (agintera)
- Elkartuko gara asteburuan horretaz hitz egiteko? (geroaldia)
- Zergatik ez dugu erreserba jada egiten? (zergatik ez...)

## 3.3 Egin proposamena beste modu batera

  **Berridatzi esaldi hauek parentesi arteko forma erabiliz.**

0. Informazio gehiago jakiteko, sartu zaitez webgune honetan. (zergatik ez)

Informazio gehiago jakiteko, zergatik ez zara sartzen webgune honetan.

1. Lan hori egiteko, zergatik ez duzu bilatzen informazioa helbide honetan? (agintera)

Lan hori egiteko, .....

2. Lasaiago ibiltzeko, erosi sarrerako online. (geroaldia)

Lasaiago ibiltzeko, .....

3. Guk etxea alokatuko dugu, eta zuek erreserbatu hegazkina. (zergatik ez)

Guk etxea alokatuko dugu, .....




4. Nik edaria ordainduko dut eta zuk ordainduko al dituzu pintxoak? (agintera)

Nik edaria ordainduko dut eta .....

5. Gastuak ordaintzeko, zergatik ez dugu dirua jartzen. (geroaldia)

Gastuak ordaintzeko, .....

### 3.4 Zergatik ez...?

   Jarri pantaila baten aurrean (ordenagailua, tableta, telefonoa...), eta gauza bat erosi edo zerbaiten erreserba egin behar duzue Internet bidez. Jarri binaka eta aukeratu gauza bat:

- Afari bat: lagunekin, bikotekidearekin...
- Asteburu bat: hiriburu, landetxe... batean
- Ikastaro bat: sukaldaritza, hizkuntza, dantza
- Arropa: udakoa/negukoa, modakoa, merkea...
- Kirol-materiala: mendiko botak, eskiak...
- Musika, liburuak, argazki-kamera bat, ordenagailua...

**Bisitatu web-orri batzuk, egin proposamenak eta erabaki.**

- *Landetxe bat erreserbatzeko, zergatik ez dugu begiratzen Googlen?*
- *Ederki. Ireki ezazu Google, faborez. Eta idatzi, adibidez, "landetxe"*
- *Oso ondo. Baina ez dugu gehiago mugatuko. Jarri "Urdaibai"*
- *Uf... zerrenda luzea. Sartu hemen...*

 **Komentatu denen aurrean zer erosi edo erreserbatu duzuen.**